



LUZAPENA, UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN ETA UNIBASQ-EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMAREN KALITATE AGENTZIAREN ARTEKO HITZARMENARENA, UNIBERTSITATEAREN IKERKETA DEIALDIAK EBALUATZEKO KUDEAKETA ENKARGUA FORMALIZATZEKO.

BILDUTA

Batetik, Federico Recart Barañano jauna, Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziako (hemendik aurrera, Unibasq) zuzendaria, haren izenean eta erakundea ordezkatzuz ari dela eta Unibasq-i buruzko ekainaren 28ko 13/2012 Legearen (2012ko uztailaren 4ko EHAA) 8.3 b) artikulua ematen dizkion eskumenei jarraikiz.

Batetik, Joxerramon Bengoetxea Caballero jauna, Euskal Herriko Unibertsitateko errektorea den aldetik (IFK: Q4818001B; helbidea: Bizkaiko Campusa, Sarriena auzoa z. g., 48940-Leioa), Euskal Herriko Unibertsitatearen (aurrerantzean EHU) izenean eta ordezkari, ekintza honetarako behar diren ahalmenak dituelarik, UPV/EHUREN Estatutuetan xedatutakoa dela bide.

Bi ordezkariak, behar adinako gaitasun juridikoa dutela elkarri aitortuta, dokumentu hau sinatu dute beren entitateen izenean eta, horretarako, honako hau

ADIERAZTEN DUTE

LEHENENGOA. - Unibasqek eta EHUK hitzarmena sinatu zuten 2024ko irailaren 2an kudeaketa enkargua formalizatzeko unibertsitatearen ikerketa deialdiak ebaluatzeko.

Hitzarmen hartako lehenengo klausulak dio: *Zerbitzuak emateko hitzarmen honen helburua da UPV/EHUK Unibasqi egiten dion kudeaketa gomendioa formalizatzea, aplikatu beharreko legeriaren arabera (40/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena, urriaren 1ekoa, 11. art.), Unibasqek ebaluazioa egin dezan UPV/EHUREN ikerketa deialdietan.*

BIGARRENA.- Bosgarren klausulak dio: *Hitzarmen hau sinatzen den egunean sartuko indarrean eta bi urte iraungo du. Epe horretan eskatzen diren ebaluazioetara mugatuko da. Alderdiek modu esplizituan hala adostuz gero, beste bi urtez luzatu ahal izango dute hitzarmen hau, testuari eranskin bat gehituta. Nolanahi ere, hitzarmena amaituko da alderdiek kasuan kasuko deialdiaren hasieran hatutako konpromisoak betetzen dituztenean.*

HIRUGARRENA.- Bi erakundeek positibotzat jo dituzte hitzarmenaren bidez lortutako emaitzak, eta hitzarmena luzatzearen alde daude.

Hori guztia kontuan hartuta, bi aldeek honako hau

ADOSTU DUTE

Luzapena sinatzea, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN eta UNIBASQ-EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMAREN KALITATE AGENTZIAREN arteko hitzarmenarena, unibertsitatearen ikerketa deialdiak ebaluatzeko kudeaketa enkargua formalizatzekoa. Luzapen hau klausula hauen arabera sinatuko da.



EUSKAL UNIBERTSITATE
SISTEMAREN KALITATE
AGENTZIA
AGENCIA DE
CALIDAD DEL SISTEMA
UNIVERSITARIO VASCO



KLAUSULAK

Lehenengoa.- Xedea.

Aipatutako hitzarmena bi urterako luzatzea.

Bigarrena.- Luzapenaren gainontzeko klausulak hitzarmenean jasota berak izango dira.

Hemen xedatu ez den guztirako edo berariaz aldatu ez den guztirako hitzarmenen jasotakoa aplikatuko da hitzez hitz.

Eta aurreko guztiarekin ados daudela frogatzeko, alde biek agiri hau sinatu dute bitarteko elektronikoen bidez, eta luzapen honen datatzat hartuko da azken sinaduraren data.

Euskal herriko Unibertsitatearen aldetik

Unibasquen aldetik

Joxerramon Bengoetxea Caballero jauna

Euskal herriko Unibertistaeko errektorea

Federico Recart Barañano jauna

**Unibasq Euskal Unibertsitate
Sistemaren Kalitate Agentizako
zuzendaria**